

2024-2026ko ziklo estrategiko berria**EROSKIK 300 HORNITZAILE BAINO GEHIAGO BILDU DITU
DATOZEN 3 URTEETAN BERE PLAN ESTRATEGIKOA GIDATUKO
DUTEN ILDOAK AZALTZEKO**

- **Jordi Hereu Industria eta Turismo ministroak eta Bittor Oroz Eusko Gobernuako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeak parte hartu dute ekitaldian**
- **EROSKiko CEO Rosa Carabelek enpresa ereduaren balioa azpimarratu du, eta adierazi du EROSKI "Sortzeko eta Hazteko" garaian dagoela**
- **Beatriz Santos EROSKiko zuzendari komertzialak azaldu du hauek izango direla ildo estrategiko nagusiak: prezioen lehiakortasuna hobetzea, hurbileko eta kalitatezko produktu freskoen aldeko apustua, eta inbertsio teknologiko handia**
- **Gainera, mahai inguru bat egin dute analitika aurreratuari, *big datari*, eta inteligentzia artifizialari buruz, eta horrek balio katean duen garrantziaz aritu dira**

Bilbon, 2024ko apirilaren 18an.- [EROSKIK](#) 400 lagun baino gehiago bildu ditu gaur Bilbon, datozen 3 urteetako ildo estrategikoak azaltzeko: besteak beste elikadura industriako 300 hornitzaile baino gehiago, finantza sektorearen ordezkariak eta Mondragon taldeko zuzendariak, eta sektoreko elkarteak, hala nola AECOC. Plan berriak betiko sustraiak mantendu eta indartuko ditu, betiko DNA, betiko balioak, eta nola ez, betiko helburua. Hala ere, eginkizuna berrituko du, etorkizunean "Sortzeko eta Hazteko" eta etorkizun oparo eta jasangarri baten alde. Horretarako, enpresa arloko emaitzak eta inguruan aberastasuna sortzea da gakoa, kontsumitzaileak asebeteta geratuko direla ziurtatuz eta elikadura osasungarria sustatuz.

Jordi Hereu Industria eta Turismo ministroak eta Bittor Oroz Eusko Gobernuako Nekazaritza, Arrantza eta Politikako sailburuordeak parte hartu dute ekitaldian, eta baita sektoreko pertsona garrantzitsuek ere.

Ekitaldiaren amaieran, Jordi Hereu Industria eta Turismo ministroak nekazaritzako elikagaien industriak duen garrantzia azpimarratu du, sektore estrategikoa baita, eta azaldu du Eroskik eta haren gisako taldeek funtsezko eginkizuna betetzen dutela elikadura katean. *"Ezinbestekoak zarete bai herritarrak oinarrizko elikagaiz hornitzeko, eta behar-beharrezkoa da hori, eta bai esportazioak gure ekonomian duten garrantzia mantentzeko ere, eta gainera, funtsezko aliatuak zarete banaketa sektorearen barruan"*, adierazi du. *"Banaketa sektore indartsurik gabe, zaila da hornidura seguru eta egokia bermatzea herrialde osoarentzat"*, gaineratu du.

Rosa Carabel EROSKiko CEOak taldearen azken urteetako ibilbidea azaldu du, eta baita gaur egungo egoera eta plan estrategikoaren ildo nagusiak ere: berrikuntza,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

jasangarritasuna, osasuna eta aberastasuna sortzea izango du ardatz. Hala, azpimarratu du EROSKIren enpresa eredu bakarra eta berdingabea dela sektorean, lantaldeak bat eginda baitaude, eta oso berritzaileak baitira. Gainera, azaldu du "EROSKIrentzat funtsezko garaia" dela "merkatuan duen posizioa indartzeko. Gure bide orriak etorkizun oparoa eta jasangarria du helburu, eta ardatz hauek izango ditu: kalitatea, familiei aurrezteko modua egitea, eta gure dendetan erosketak modu gero eta pertsonalizatuan egin ahal izatea. Horren guztiaren oinarria kontsumitzaileen osasuna eta ongizatea da. Emaitzen bilakaera positiboa da, zorra normalizatuta daukagu, sare osasuntsua eta eraginkorra dugu, eta kontsumitzaile gero eta gehiago egiten digute aitortza; EROSKIrentzat, sortzeko eta hazteko garaia da".

Bestalde, Beatriz Santos EROSKIko zuzendari komertzialak azpimarratu du "prezioen lehiakortasuna hobetzea, hurbileko eta kalitatezko produktuen aldeko apustua eta kontsumitzaileen esperientzia eta lanaren eraginkortasuna eraldatuko dituen inbertsio teknologiko handia" izango direla 2026ra arte enpresa gidatuko duten ildo estrategiko nagusiak. Hala, azaldu duenez, "Betik Prezio Ona" izateko konpromisoak bide emango digu gure prezioak lehiakide ditugunen berdina edo txikiagoak izan daitezen eguneroko milaka produktutan". Plan berriaren funtsezko beste ildo bat produktu sorta eraginkorra izatea da, arreta berezia jarriz kontsumitzaileen beharretan eta produktu eta marken aukera zabala eskainiz kontsumitzaileek aukeratu ahal izan dezaten. Tokian tokiko produktuek garrantzi berezia izango dute, EROSKI elikadura osasungarri eta eskuragarriarekin duen konpromisoaren adierazgarri.

EROSKI hazten ari da, eta datozen hiru urteetan 150 denda berri baino gehiago irekiko dituela aurreikusten du, bai propioak eta bai frankiziak; "Espainia iparraldean lider izaten jarraitu nahi dugu, eta gure presentzia beste eskualde batzuetara zabaldu frankizien sarearen bidez", zehaztu du Beatriz Santosek.

Gainera, EROSKIren plana erakutsi die ekitaldira bildutakoei: "100 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egingo dugu eraldaketa teknologikorako programa batean: intelijentzia artifizia eta robotizazioa txertatuko ditugu erabakitzeko ahalmena eta prozesu komertzialak hobetzeko."

Hain zuzen, ekitaldian mahai inguru bat egin dute analitika aurreratua eta big data txikizkako merkataritzan erabiltzeari buruz, eta lider diren enpresetako adituek eta akademiako kideek parte hartu dute hausnarketan: hala nola Fernando Pasamonek (Managing Partner Consumer Industry and Growth Leader at deloitte Spain); Rai Cararachek (Espainiako Nestle etxeko Corporate Sales Director); Rosario Pedrosa AECOCeko estrategia komertzialeko eta marketineko arduradunak, eta EROSKIren ordezkariak: Ana Cuevas Mix Komertzialeko zuzendariak, eta Carmen Guelbenzu Elikadurako zuzendari komertzialak. Eztabaida horretan, azpimarratu dute oso garrantzitsua dela teknologia berriak balio katearen kudeaketan sartzea, bide emango baitu etorkizunean elkarlanerako aukerak sortu eta merkatuaren aldaketetara egokitze, lankidetzan aritzeko kontsumitzaileei produktu eta zerbitzu hobeak eskaini ahal izateko, eta prozesuen eta erabakien eraginkortasuna ziurtatzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)